



## **ESKOLA TXIKIETAKO IV. TOPAKETAK (DURANGO)**

Aurreko ikasturtean, 2009ko ekainaren 25ean, Eskola Txikietako IV. topaketak ospatu genituen. Guztira, 175 bat lagun parte hartu genuen eta horietako 10, gurasoak ziren. Egitarau zabal eta oparoa izan zen; hitzaldiak, eskoletako esperientzi desberdinen azalpenak (tailerrak), erakusketa eta ekitaldia ixteko clown talde baten emanaldia.

Hitzaldiei dagokienez, alde batetik, Granadako **Antonio Bustos** Santa Cruz del Comercio herri txikitako irakasleak hango Eskola Txikietako egoera azaldu zigun, bere esperientzia eta tesia azalduz bi saio desberdinetan, bat gurasoei zuzenduta eta bestea, aldiz, irakasleei. Gurasoak, batik bat, izugarri estimatu zuten Antonioren hitzaldia.

Bestetik, **Carlos Gallego**, Bartzelonako Unibertsitateko irakasleak, matematikaren didaktikaren inguruko hitzaldia eskaini zigun. Bere hitzaldia interesgarria eta egokia izan arren hainbat arazo izan genituen megafoniarekin eta izugarri moteldu zuen erritmoa.

**Tailerrei** dagokionez, aldiz, aipatu beharra dago 8 tailer desberdin izan genituela, horietatik irakasleek 3 entzuteko aukera izan zuten. Orokorrean oso ondo baloratu dituzte tailerrak. Garbi dago hau dela topaketaren atalik baloratuena nahiz eta hurrengo ikasturterako komeni den alde aurretik eskoletara informazio zehatzagoa ematea, tailerraren izenetik aparte, ze gai lantzen diren, ze adinetarako den ea.

**Pailazo taldeak** bukaera eman zion egunari, oso gustura hartu genuen eguna humorearekin hasi (aurkezpenak pailazo sudurrarekin egin ziren) eta humorearekin bukatzea.

**Antolaketari dagokionez** hainbat gauza aipatu nahiko nituzke. Batetik, teknologietan aditua den bateren bat izan behar dugu egun guztian gurekin, zerbaitek huts egiten duenean momentuko erantzuna emateko. Bestetik tailer batetik bestera pasatzeko denbora gehiago eman behar da eta bukatzeko erakusketa jartzen badugu berriro ere, ikusteko denbora bat eman behar dugu.

Begirada orokor bat emanez, aipatu nahiko nuke, urtero-urtero Eskola Txikietako irakasleak Topaketei ematen dien erantzun paregabea, ikusi besterik ez daude datuak. Eskola Txikietako irakasleentzako prestakuntza ona izateaz gain, irakasleen arteko elkargune garrantzitsua bihurtu da. Hurrengo ikasturtea aderez eta indarrez hartzeko ezinbesteko topa-gune bihurtu zaizkigu topaketak.

Isabel Lakuntza Arregi  
Gipuzkoako Eskola Txikietako koordinatzailea  
[www.eskolatxikiak.org](http://www.eskolatxikiak.org)  
[irakasleak@eskolatxikiak.org](mailto:irakasleak@eskolatxikiak.org)